

UROLA KOSTAKO HITZAGUKA

UROLAKOSTA.HITZA.EUS

OSTEGUNA, 2023KO

IRAILAREN 14A

XX. URTEA, 5.432. ZENBAKIA



ISILDU DA PLAZETAKO BIZIPOZA

Imanol Arregi 'Iturbide' pandero jotzaile loiolatarra hil da, 87 urterekin. Azken urteetan plazetan jotzeari utzita zegoen, baina sekula ez zion utzi mahai bueltak girotzeari. Orain, betirako isildu dira haren doinuak eta bizipoza // 7

ARNANTZ RUBIO APREA

Telmo Deuneko emakumeak, Euskotren ligara igotzearekin amesten

Zumaiako taldeak mailaz igo ahal izateko sailkapen kanporaketa jokatu du asteburuan. «Asko dugu irabazteko eta ezer ez galtzeko», diote // 2



«Ezustean etorri bada ere, aukera aparta da Benfican jokatzeari»

Sara Iparragirre
Saskibaloiko jokalaria

Azken urteak Iraurgin eman baditu ere, Lisboako Benfica taldeko jokalaria da egun gazte oriotarra. Talde garrantzitsua dela eta gogotsu dagoela dio // 3

euskara hurbil,
zu urrun heltzeko



Urolako AEK

Matrikula zabalik,
irailaren 1etik 22ra

azkoitia@ae.eus
607 612 697
zestoa@ae.eus
670 420 048

DIRULAGUNTZAK



ZARAUTZ
Udal Euskaltegia

Iturribidea 28-30
ZARAUTZ
943 131 153 / 943 835 084
euskaltegia@zarautz.eus

MATRIKULA EPEA ZABALIK
Maila guztiak
Aurrez aurreko taldeak eta autoikaskuntza

Galaktik areto futbol talde berria sortu dute Azpeitian

«Kirolaz lagunartean gozatzeko helburuarekin», hainbat gaztek areto futbol taldea osatu dute. Urrian ekingo diote ligari, eta hasi dira prestatzen // 5

«Asko irabazteko eta ezer ez galtzeko», Telmo Deuneko neskek

Telmo Deuneko arraunlariak datorren denboraldian Euskotren ligan lehiatzeko 'play-off'-ak jokatu dituzte asteburuan.

-INTZA TRULA

Lan gogorraren eta konstantziaren isla izan da aurtengo denboraldia Telmo Deuneko emakumeen traineruarentzat. Bigarren sailkatu da ETE ligan, lehenengo amaitu duen Kaikurengandik lau puntura. Horrez gain, Kontxako Banderaren lehian ere izan da, eta asteburu honetan du denboraldiko hitzordu garrantzitsua: Euskotren ligara igotzeko kanporaketak jokatu ditu; *play-off*a, alegia.

Denboraldia ezin hobeto hasi zuten Kike Manterolak zuzendutako emakumeek, Donibane Lohizunen jokaturako estropadan bandera irabazi baitzuten. Jule Egiguren Telmo Deuneko arraunlariak azaldu duenez, horrek bultzada eman zien aurretik zituzten hitzorduei heltzeko: «Indarra eman zigun liga banderarekin estreinatzeak; ikusi genuen gu ere borrokatzeko gai ginela eta aurrera egin behar genuela». Era berean, Argia Ibar taldekideak taldearen balorazio positiboa egin du, eta denboraldi osoan zehar «oso erregularrak» izan direla azpimarratu. Gainera, estropada batzuetan zenbait puntuk ihes egin badiete ere, ez dituzte goiko postu horiek begi bistatik galdu.

*Play-off*etara sailkatzea abuztuaren 19an lortu zuten Zumaia-koek; Zarauzko Ikurrina irabazi eta bandera etxera ekarri zuten asteburuan, hain zuzen ere, Orduan bildu zituzten puntuei esker, sailkapeneko bigarren postua matematikoki bermatzea lortu zuten. Laia Aranbarri arraunlariaren esanetan, denboraldiaren erdialdean ikusi zuten *play-off*ak jokatzeko aukerak zizutela: «Estropadak aurrera joan ahala, Zarautzekiko aldea handitzen joan ginen, eta denboraldiaren erdialdean txartela lortzea posible zela ikusten hasi ginen». Egiguren ere ados agertu

da Aranbarrik esandakoarekin: lortzen ari ziren puntuen aldearekin, sailkapen fasea jokatzeko aukera galtzeko «zerbait oso gaizki» egin behar zutela dio arraunlari zumaiaarrak.

Hori horrela, larunbatean eta igandean Bermeoko eta Portugaleteko uretan izango dira Telmo Deuneko arraunlariak, datorren urtean Euskotren ligan lehiatzeko postua lortzeko. Hiru talde arituko dira erlojuaren aurka, eta azkarrenak izateak soilik balioko die. Bi hitzorduek dute berebiziko garrantzia, baina Bermeoko estropadan ahalik eta alde handiena eskuratzea garrantzitsua dela iritziz dio Egigurenek: «Itsasoa jokatu dugu estropada, eta itsasoa beti da errazagoa segundo gehiagoren aldea ateratzea aurkari, itsasoa beti du gehigarri hori». Gainera, *play-off*-ak puntuen arabera baloratzen dira -lehenengoak hiru puntu, bigarrenak bi eta azkenak bakarra-, baina bi talde puntuetan berdinduta badaude, denborak hartuko dira kontuan.

Kaiku eta Hibaika

ETE ligako irabazlea izan den Kaiku eta Euskotren ligako seigarren postuan amaitu duen Hibaika hartu beharko dituzte mende Zumaia-koek asteburuan. Gainera, badute esperientzia horretan; izan ere, Kontxako Banderarako sailkatze estropadan bi taldeen aurretik sailkatu zen Telmo Deun. Aurkariak dagokienez, Egigurenek iritziz dio «hiru taldeak oso pareko» ibiliko direla, eta «momentuan ondoen asmatzen duenarentzat eta lan onena egiten duenarentzat» izango dela goiko mailan jokatzeko txartela.

Era berean, Kaikuk lau puntu besterik ez dizkie atera ETE ligako sailkapen nagusian, eta Ibarren esanetan, horrek ere nola baitaiteko bultzada ematen die:



Telmo Deuneko kideak. TELMO DEUN

«Lehenengo postuan geratu da Kaiku, baina ez daude batere urruti, eta ikusten dugu aukerak ditugula irabazteko». Aranbarrik dioen moduan, denboraldi osoan bata bestearen atzetik ibili badira ere, «azken txanpan indarra hartu» dute Zumaia-ko emakumeek, eta lehen sailkatuari arnas gutxi utzi diote hartzen.

Zortzi traineruk osatzen dute Euskotren liga, eta teoriarik azken sailkatuak jokatzeko du *play-off* kanporaketa, baina oraingoan ez da horrela izan. Izan ere, azken bi postuetan geratu diren Galiziako taldeek -Tiraneketa Cabok- postuak gordeta dituzte datorren denboraldirako. Horregatik, seigarren sailkatu den Hibaikak jokatu ditu Euskotren ligari eusteko estropadak. Erabaki hori «bidegabekoa» da Egigurenen aburuz, bai goiko taldeentzat, baita behekoentzat ere: «Goikoak azken postu horretatik ihes egin nahian dabilta, baina hala ere ez da nahikoa. Gu, berriz, seigarren postuan geratu den talde baten aurka lehiatuko gara, eta ez denboraldian azkena egin duenaren aurka». Aranbarri ere ados agertu da taldekideak esandakoarekin: «Azken finean, Galiziakoek ez dute ezer jokatzeko denboraldian zehar. Badakite Euskotren ligan egongo direla datorren sasoiaren ondorioz, estropadetako emaitzak ez dira hain garrantzitsuak». Ildo beretik, Ibarrentzat «ez da justua seigarren postuan dagoen taldeak ligan mantentzeko estropadak jokatu behar izatea, atzetik beste bi talde dituenen».

Gora begira

Asteburua gero eta hurbilago dago Manterolak gidaturako taldearentzat, eta horren aurrean

«urduri eta gogotsu» daudela adierazi du Ibarrek. Hala eta guztiz ere, taldean duten giro ona eta lagunartea azpimarratu ditu Aranbarrik: «Talde bat izan gara denboraldi osoan. Gauzak ondo doazenean errazagoa da taldea bat eginda egotea, eta erakutsi dugu gaizki joan direnean ere horrela izan dela. Uste dut horrek *play-off*-etan ere indarra emango digula».

Egigurenek aipatu duenez, «zerbait polita» atera daiteke asteburuko kanporaketatik, baina jakitun dira alderantziz ere izan daitekeela: «Motibatuta gaude denok eta onena ematera aterako gara, baina badakigu esku hutsik ere itzul gaitezkeela». Aranbarrik gogoratu duenez, zera esan ohi die entrenatzaileak: «Asko dugu irabazteko, eta ezer ez galtzeko».



Telmo Deuneko trainerua, Kontxako Banderan. ONINTZA LETE ARRIETA

«Atzerriko talde batean jokatzeko urte aproposa zela pentsatu nuen»

SARA IPARRAGIRRE SASKIBALOI JOKALARIA

Oriotar saskibaloijokalaria gazteak lehen denboraldia du Portugalgo Benfica taldean, eta esperientzia berria «ezustean» etorri zaiola aitortu duen arren, gustura dabil atzerrian.

**-AIORA LARRAÑAGA
SOLABERRIETA**

Sara Iparragirre (Orio, 1998) Lisbona da abuztuaren 18tik, Portugalen, Benfica taldearekin jokatzen. Saskibaloijokalaria gazteak lehen denboraldia du atzerriko talde batean, eta esperientzia berriaz aritu da hizketan hedabide honekin.

Orain iritsi zaizu Benfica taldearen proposamena. Momentu ona al zen zuretzat?

Bai, orain arte oso eroso egon naiz Iraurgin, baina aurreko denboraldian lau taldek emaitza berarekin bukatu zuten liga, eta, zoritxarrez, Iraurgik galdu zuen maila. Gaiari bueltaka hasi nintzen, eta pentsatu nuen hau zela kanpora joan eta atzerriko talde batean jokatzeko zer den probatzeko urte aproposa, irakasle izateko masterra egiten ari naizen bitartean. Ez nuen arantzarekin geratu nahi; agente bat hartzera animatu nintzen, eta Benficara etortzeko aukera sortu zitzaizdan.

Aste batzuk daramatzazu Lisbona. Zer aurkitu duzu horra iritsitakoan? Zerbaitek harritu al zaitu?

Ez nuen taldea ezagutzen, ezta taldekideak ere, baina hona iritsitakoan konturatu naiz taldeko bi kideren aurka jokatutakoa naizela. Azken batean, guztia da desberdina, baina oso gustura nago. Goi mailako neska kirola-



UTZITAKOIA

rien erresidentzia batean bizi naiz, eta guztiok jatorri desberdinetakoak garenez, gure artean ingelesez hitz egiten dugu. Kirol arloari dagokionez, Benfica oso klub garrantzitsua da Portugalen, eta nabaritu egiten da beren profesionaltasuna; prestatzaile fisikoa, fisiologoa, fisioterapeuta, nutrizionista, dentista, sendagilea... ditugu taldean. Entre-

namenduak ere goizez eta arratsaldean izaten ditugu ia egunero; egun batzuetan hiru entrenamendu ere bai. Prestaketa mota hori niretzat berria da, eta ohitzen ari naiz.

Taldeak, gainera, palmarek garrantzitsua dauka.

Portugalen oso talde inportantea da. Emakumezkoen saskibaloijokari ligaren jokatzeko du,

baita Eurocupen ere. Jarraitzaile asko ditu, eta jende pila bat joaten da partidak ikustera. Baina entrenatzaileak jakinarazi zigun zaleen bultzada horrek presioa ere sortzen duela, alegia, kantxara ez goazela jokatu eta ea zer pasatzen den ikustera. Taldearen helburua irabaztea da, eta saioak egingo ditugu psikologoarekin presio hori nola kudeatu ikaste-

ko, baita sare sozialen erabilera egokia egiteko ere. Kirolari bezala, jende askok jarraitzen gaitu, eta eredu izan behar dugu. Sare sozialetan kontu handiz ibili behar dugula pentsatzen dute klubeko arduradunek.

Zure kirol ibilbidean urrats garrantzitsua izan da, beraz.

Ezustean etorri bada ere, kirolari bezala aukera aparta da Benficari jokatzea, bai, eta taldea goi mailakoa izateak asko erraztu zidan erabakia hartzea.

“

«Jarraitzaile asko ditugu, eta jende pila bat joaten da gure partidak ikustera»

«Nik serio entrenatu izan dut beti egon naizen talde guztietan»

Profesionaltasun handiko taldea denez, presioa duzuela aipatu duzu. Horrek taldeko giroan eraginik ba al du?

Taldeko giroa ona da, eta kanpotik gatozenak oso ongi hartzen gaituzte. Taldean berria naizenez, asko daukat ikasteko, jokatzeko modua barneratu eta horretara egokitu behar dudalako, baina asko laguntzen ari zaizkit. Nik serio entrenatu izan dut beti egon naizen talde guztietan, eta Benficari ere horretan ari naiz. Gogotsu nago.

Zer helburu jarri diozu zeure buruari denboraldi honetara begira?

Kirolari gisa, ahal dudan mailarik onena eman nahi dut, taldeari lagundu ahal izateko. Kolektibo gisa, Portugalgo txapelketetan ahal dugun guztia irabaztea da helburua, eta Eurocupen, berriaz, gure bertsiorik onena ematea.

Kartzela zigor eskaera, Orion tratu txarrak ematea leporatuta

-ONINTZA LETE ARRIETA

Duela lau urte, 2019an, Orioko emakume batek salaketa jarri zuen Zarauzko ertzain etxean, bikoteak tratu txarrak ematen zizkiolako eta sexu erasoa ere jasan zuelako. Ertzainek berehala atxilotu zuten ustezko erasotzaile-

lea, eta hedabide honek baieztatu ahal izan duenez, orain, lau urte geroago, ari dira epaiketa egiten.

Gizonezkoarentzat hogei urte-tik gorako kartzela zigorra eskatu du Gipuzkoako Fiskaltzak bi delitu horiek egotzita, hau da,

tratu txarrak ematea eta sexu erasoa egitea, eta behin epaiketa amaituta, sententzia datorren astean bertan egon litekeela jakin du hedabide honek.

Oraingoz, adierazpenik eta deialdirik ez du egin mugimendu feministak.

Zozketa

HITZA kide **en**
TXOKOA

29 KULTURA

Oteiza Museoa

www.museooteliza.org/ez/

[Zozketa zenbakia: 29]

Bi sarrera bikoitz

Zozketan parte hartzeko deitu: **943-56 01 64** zenbakira edo **webguneko TXOKOA atalean izena eman**, gaurtik irailaren 14ko eguerdiko 12:00ak baino lehen. Sari-dunen izenak ostiralean argitaratuko ditugu.

Bikote mistoen lasterketa, Izetaren 40. urtemugan

—ONINTZA LETE ARRIETA Aia Izeta sagardotegiak 40 urte bete ditu aurten, eta urteurrena ospatzeko, Izeta Bikote Mistoen Mendiko Lasterketa Solidarioa izeneko kirol txapelketa sortu du. Proba igande honetan jokatu da, 09:30ean hasita, Izeta sagardotegitik (Elkano auzoa, Urdaneta bidea, Aia) bertatik abiatuta, eta partaideek 6,4 kilometro egingo dituzte korrika. Lasterketako

izen ematetik bildutako dirua Marea Urdina taldeari laguntzeko izango dela zehaztu dute.

Izetatarrek «zerbait berezia» egin nahi izan dute urteurrena ospatzeko, eta gogoratu dute beren familia beti egon dela kirolari oso estuki lotuta. «Izeta sendia eta kirola loturik egon dira hamarkadetan zehar; herri kirolak ez ezik, beste kirol guztiak ere maite ditugu. Hala, familia, na-

tura, kirola, gastronomia eta elkartasuna uztartu nahi ditugu egun berezi horretan», nabarmendu dute.

Edonork egitekoa

Izeta sagardotegiko lurretan, sagastietan barrena, «edonork egiteko moduko ibilbidea» prestatu dutela ziurtatu dute. Gainera, 14 urtetik beherako haur eta gazte txoentzat ere antolatu dute 700

metroko beste proba bat; helduen lasterketaren ondoren egingo dute hori. Izzen emate epea ekaina bukaera ireki zuten, eta bihar 20:00etan bukatuko da. Oraindik izena eman ez duten bikoteek *kronoak.com* atarian egin dezakete, 25 euro ordainduta.

Bestalde, «Marea Urdinaren helburu solidarioarekin bat egin» nahi du Izeta sagardote-

giak. «Aniztasun funtzionala duten pertsonenganako sentsibilizazioa gizarteratu nahi dugu, eta ahal bada, ekonomikoki ere laguntza bideratu».

Izetatarrek herritarrei dei egin diete lasterketan parte hartzera nahiz korrikalariak bertatik bertara animatzera, gisa horretan, kirola elkartasun giroan, elkarrekin sagardotegiaren 40. urteurrena ospatzeko.

AP-8ko erre berria, bidean

Buztinzuri kalearen pasabidea luzatuko dute Zarautzen, autobideko hiru garren bidea zabaltzeko • Milioi bat eurotik gorako kostua izango dute lanek

—JABI GONZALEZ TOSTON

Gipuzkoako Foru Aldundiak larunbatean abiatu zituen AP-8 autobideko Donostiako noranzkoan Zarauzko irteera hobetzeko lanak: hirugarren bidea eraikiko dute, eta ordainlekura iritsi baino 300 metro lehenago hasiko da. Era horretara, desbideratzea aurreratzea lortuko dute, eta horrek «bide segurtasuna hobetuko du, ibilgailuak dagokien erreietan kokatzea erraztuko duelako ordainlekuaren aurreko bideen zabalgunera iritsi aurretiko».

Bide berria egin ahal izateko, Buztinzuri kalearen azpiko pasabidea berritu eta luzatu beharko dute, eta 1.310.772 euroko aurrekontua izango dute lanek. Kopuru horri BEZa gehitu beharko zaio ondoren, eta 11 hilabetean amaitu beharko dituzte lanak.

Aldundiak zehaztu duenez, Buztinzuriko pasabidearen berritzearen barruan sartzen dira egungo hogei habeetako bat sendotzea, bi ordezkatzeta eta beste bi gehitzea, bide berria eta bazterbidea joango diren taula instalatzeko. Horrez gain, hormigoizko hesiak jarri zituzten, lanek irauten duten bitartean langileen eta erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko. Horrek eragina izan zuen trafikoan, larunbat arratsaldean hasi eta igande goizera bitartean.

Aurretik, ordea, lanerako eremua behar bezala prestatu behar izaten da, eta horretan aritu ziren asteburuan: Donostiako norabideko bi bideetako errodadura-geruza fresatu eta hormigoizko hesiak jarri zituzten, lanek irauten duten bitartean langileen eta erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko. Horrek eragina izan zuen trafikoan, larunbat arratsaldean hasi eta igande goizera bitartean.

Orioko irteera itxita

AP-8 autobidearen Orioko irteera itxita egon da bart, egonkortzeko betelanak egiten ari direlako, eta gaur gauean ere ez da erabilgarri izango, 22:30etik 05:30era, Gipuzkoako Foru Aldundiak jakitera eman duenez. Erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko aldera, hormigoizko hesiak jarriko dituzte. Itxiera honen aurrean Zarauzko irteera erabiltzea gomendatu diete erabiltzaileei.



Gipuzkoa eta Nafarroa kaleak elkartzen diren puntuan, lanean. ZARAUZKO UDALA

Hasi dituzte Nafarroa eta Gipuzkoa kaleak batuko dituen biribilgune berria eraikitze lanak. Bi bideko azpiegitura izango da, eta hiru irteera eta lau sarrera izango ditu. Errepideko segurtasuna hobetzea da lanen helburua.

Biribilguneko lanak, martxan

—MIREIA GALARZA BASTIDA Zarautz

Joan den astean hasi ziren Nafarroa eta Gipuzkoa kaleak batuko dituen biribilgunea eraikitzen Zarautzen. Inurritza auzoko urbanizazio lanen barruan egingo dute azpiegitura berria; herriaren irteeran dagoen G-634ko biribilgunetik oso gertu, hain zuten ere.

Lanek sei hilabete iraungo dutela adierazi du Zarauzko Udala, eta bitartean, Gipuzkoa kaleko azken zatia, gasolindegia pare-

koa, itxita egongo da ibilgailuentzat. Ondorioz, Nafarroa kaleko trafikoa Zinkunegi eta Etxebeste kaleetatik bideratuko dutela azaldu du erakundeak. Horrez gain, Hiribusaren bi geltoki ere lekualdatuko dituzte lanek irauten duten bitartean. Inurritza-koa, Maria Etxetxiki eta Nafarroa kaleen arteko bidegurutza aldatuko dute, eta Pontarlierkoa, aldiz, Mollarri eta Nafarroa kaleen bidegurutza.

Bi bideko biribilgunea eraikiko dute, eta hiru irteera —Gipuz-

koa, Nafarroa ekialdea eta Nafarroa mendebaldea— eta lau sarrera —Gipuzkoa, Nafarroa ekialdea, Nafarroa mendebaldea eta Sorginmuño bidea— izango ditu.

Zarauzko Udaleko Mugikortasun zinegotzi Iker Basurkoko adierazi duenez, «biribilgune berriekin, gune horretako segurtasuna hobetuko da, baita trafikoa arindu ere». Lan horien barruan, etorkizunean Inurritza egongo diren apartaleku publikoetako zein pribatuetakoa sarrerak ere eraikiko dituztela gaineratu du.

Iragarki laburrak

Lan eskaintza

Zarautz. Santa Ana egoitzan, monitore bezala lan egiteko pertsona baten bila gabeitza. Interesatzuz gero, deitu 943-83 31 50 zenbakira.



Garcia, Carpintero, Arregi eta Agirrezabal, Azpeitiko kiroldegian, taldearen kamisetak eskuetan dituztela. MAIALEN ETXANIZ

Areto futbol talde berria sortu dute Azpeitian: Galaktik. «Kirolaz lagunartean gozatzea» dute helburu, eta hasi dira entrenatzen. Urrian ekingo diote ligari.

Galaktik, bidea urratzeko prest

—MAIALEN ETXANIZ

Areto futboleko talde berria dauka Azpeitiak. Galaktik jaio berri da, eta horren atzean daude, beste batzuen artean, Ricardo Arregi, Yeray Garcia, Ander Carpintero eta Nuria Agirrezabal. Duela lau hilabete inguru hasi ziren taldea sortzeko prozesuarekin, eta bidean topatutako traba guztiei aurre eginda, Hirugarren Mailako Ligari ekiteko prest daude.

«Futboleko urte luzez arituta, koak gara hainbat taldetan, baina nekatuta geunden. Lanetik irten, eta asteaz geroz entrenamendu ugari izaten genituen, eguraldi txarrekin euren entrenamenduak nazkatuta geunden, eta futbolaz beste modu batera gozatzeko grina sortu zitzaigun. Gainera, urteaz parte hartu dugu Gaztetxeko futbito txapelketan, eta oso gustura ibiltzen gara kirolean, lagunartean», azaldu du Carpintero. «Lokalean hizketan ari ginela otu zitzaiz-

gun areto futboleko talde bat sortzea. Burutazioa izan ostean, informazio eske hasi ginen, eta oharitu ginen ez zela guk uste bezain erraza. Handi geratu zitzaigun kontua. Beraz, Nuriak [arrebak] laguntza eskaini zigun, eta hari esker atera da aurrera proiektua. Ikusten ez den lan asko egin du hark», erantsi du.

Agirrezabalek barrez entzun ditu anaiaren hitzak, baina arrazoiak eman dio, eta kontatu du prozesu burokratikoak «buruko min» handia eragin diela: «Burokraziari lotutako eginbehar guztiez ni arduratu naiz, eta egia esan, oso luze joan da dena. Kirol klubaren eginbehar da, kirol klubaren sortu behar da aurrera, horretarako estatutuak sortu eta erregistratu behar dira. Trabak jarri zikiguten hasieratik, baina azkenean, lortu genuen erregistratzea. Ondoren, federazioa sartzen da jokoan, eta fitxak egin behar dira, mediku azterketa igaro behar da... Oztopo pila bat atera zaigu lur azpitik, eta pentsatu baino gehiago luzatu da

prozesua». Dena den, «pozik» agertu da azpeitiarra, dagoeneko eginbehar teknikoak amaitu baitituzte.

Gertuko babesleak, akuilu

Atzeko lana zaila izan den arren, taldearen osaketa «erraz» egin dutela kontatu du Galaktikokoek. «Kalabaza» batzuk ere jaso dituzte, ordea. «Taldea osatzeko jende ezagunarengana jo genuen. Gaur egun taldeko kide garen askok elkarrekin jokatu izan dugu futbolekin, eta beste batzuek zuzenean joan gara. Esaterako, futbito txapelketan ondo moldatzen direnei taldera batzeko proposamena egin diegu, eta horietako hainbatek ezezkoa eman diguten arren, beste batzuk animatu egin dira», adierazi du Arregik. Gaineratu du «normala» dela ezezkoak jasotzea, taldeko partaide izateak «konpromisoa» eskatzen baitu. «Hori bai, baiezkota eman dutenak esperientzia berriak probatzeko gogoz daude», adierazi du Carpintero.

Lagun talde bati izaera forma-

la ematea ez da egiteko erraza. Kirol klub batek entrenatzaileak, prestatzaile fisikoak, aholkulariak, jantziak, kirolerako materiala... behar izaten ditu, eta horiek guztiak lortzeko lanetan ere ibili dira Galaktikokoek. Entrenatzailea bilatzea «zaila» izan dela kontatu du Arregik: «Ezin da edonor jarri entrenatzailearen arduran. Fitxa teknikoak eta entrenatzaile titulua edukitzea ezinbestekoa da, eta areto futboleko titulua edukitzea ez da ohikoena. Hori dela eta, egiaztatzea daukan norbait aurkitzea zaila izan da. Anderren eta Nuriaren aita agertu zen titulua ateratzeko prest, eta horrek asko erraztu du prozesua. Gainera, Azpeitiko lehengo areto futboleko presidente izandakoa laguntzaile gisa arituko da, eta hark esperientzia handia du». Garcia adierazi du «asko» ikasiko dutela hari esker.

Kirol klubak eskatzen dituen beharrei erantzuteko ezinbestekoa da finantzaketa. Hori dela eta, Galaktikoko kideek ingurukoengana jo dute laguntza eta babes eske. «Hastear den talde

batentzat zaila da babesleak aurkitzea. Hori dela eta, gertuko jendearengana jo genuen. Haiei esker lortu dugu dirua; izan ere, behar asko —mediku probak, materiala, ekipazioa...— ditu kirol klub batek, eta laguntzarik gabe oso zaila da horiei aurre egitea»,



«Giro ederra sortu nahi dugu, eta jendea kaletik kiroldegira gerturatzea»

Ander Carpintero
Galaktikoko jokalaria

«Ibilbidea hastear den talde batentzat zaila da babesleak bilatzea»

Nuria Agirrezabal
Galaktikoko teknikaria

adierazi du Agirrezabalek. «Landeda jatetxera jo genuen, Lur Etxeberrira laguna dugulako, taldekide bat Da tabernako arduraduna da, Yerayren familiak Iraye taberna kudeatzen du, Josu Rodriguez familiakoa da eta Nuriak Etxe Zuri tabernan lan egin izan du. Taberna horiek eta inguruko norbanakoez lagundu digute ekonomikoki, eta horien laguntzarik gabe ezinezkoa litzateke talde hau sortzea», gaineratu du Carpintero. Babeslerik handienak horiek diren arren, ekarpen txikiak egiteko prest dauden bila dabilta oraindik.

Zaletasuna eta lagunartea

Galaktik taldearen helburuak zein diren galdetuta, argi erantzun dute: «Lagunartean kirolaz gozatzea». Dena den, «beharrezkoa den seriotasuna» ere jarriko diote taldeari.

Asteaz bi-hiru entrenamendu egitea aurreikusten dute, kiroldegian zein Urola ikastolan, eta partidak ostiraletan jokatzeko nahi dute. «Kirolaren bueltan giro ederra sortzea eta jendea partidak ikustera gerturatzea nahi dugu. Musika jarriko dugu, jan-edana izango da eta zozketak egingo ditugu», aurreratu du Garcia. Carpintero, bere aldeetik, azpimarratu du «kaleko jendea» direla eta jendea kaletik kiroldegira eraman nahi dutela: «Herrian ezagutzen gaituzte. Beraz, espero dugu partiden bueltan giro ederra sortzea. Horrek motibazioa emango digu hobeto jokatzeko». Irailean hainbat lagunarteko neurketa jokatu dituzte, eta urrian ekingo diote ligari, ofizialki.



Puntuka
Intza Trula

Nahia ala onarpena?

Sarean denetik topa dezakegu, era guztietako publizitateak agertzen zaizkigu une oro, aplikazio batean edo bestean gaudela ere. Inon klik egin beharrik ez dago milaka enpresaren produktuak ezagutze-ko –kontsumitzaileok zer edo zer erostea ere lortzen dute noizbehinka–, askotan irakurtzen ari garen artikuluen alboan edo goiko barran ateratzen baitzaizkigu, kolore eta soinu deigarriekin. Kosta egiten da batzuetan horrelakoei jaramonik ez egitea.

Badira arropa dendak sustatzea helburu duten publizitateak, aspalditik garaje- an abandonatuta duzun autoa erosi eta saltzeaz arduratuko direla hitzematen dituztenak, baita animalien ile apaindegiak ezagutzera ematea helburu duten iragar-kiak ere. Ez dut ezer aipatutako iragar-



Ebakuntza baten irudia. PIXABAY

kien aurka, ezta aipatu gabe utzi ditudan beste mila publizitateren aurka ere; nire zalantzak ditut, ordea, ebakuntza estetiko-koen ingurukoekin.

Bada, azken urteotan nabarmen egin dute gora ebakuntza estetikoek, eta ingurura begiratuta, horiek gauzatzen dituztenen adin tartea jaitxi dela ere esango nuke, inongo zalantzarik gabe. Sare sozialak kontsumitzen ditugunok egunero eta etengabe ikusten ditugu bularrak tenteago jarri dituzten emakume gazteen testigantzak, sudurra findu eta altxatu dutenenak, edota sabelean 'soberan' zutena kendu dutenenak.

«Zure ametsetak bularrak lortzeko

aukera izango duzu hilabete honetan, %20ko beherapenarekin», ebakuntza estetiko batek bizitza konponduko balu bezala, horrelaxe saltzen digute, eta horrelaxe erosten dugu guk. Denok aurpegi bera izan behar dugu; sudur bera, ezpain berak, bular berak, gerrialde bera eta hanka berak. Ebakuntza estetikoekin gizarteak eratutako eredu zehatz baten bila gabilta etengabe, kosta ahala kosta. Ezarritako arau eta irudi horretatik ihes egiten duten emakumeek ez dute lekurik hemen, hori da behintzat gehienetan nire sentipena.

Sare sozialera itzuliz, beste gauza batzuetan ez dakit, baina, *influencer*-ek

ebakuntzen munduan eragin, eragin dute, bai noski. Batzuetan pentsatzen dut milaka –milioika kasu batzuetan– jarraitzaile dituzten Interneteko izar horiei pantailaren atzean dagoen ehuneko handi bat oso eraginbera dela ahaztu ote zaien. Adingabeak gehienetan, edota, besterik gabe, euren gorputzekin gustura ez dauden eta une oro gainontzekoekin konparatzen ari diren gaztetxoak. Nera-beei izan ditzaketen segurtasun eza eta konplexuak ebakuntza estetikoekin uxa-tuko ditugula saltzeak izan ditzakeen ondorioak kontutan hartzeaz ahaztu garela esango nuke.

Norbera erabat libre da bere gorputza-rekin zer egin erabakitzeo, edozer kendu, bestea jarri eta aldatzeko, zentzu literalean behintzat, ez baitigu inork pistolarik buruan jartzen horrelako zerbait egin dezagun. Baina emakume perfektuaren irudia hain errotuta dugu gizarte honetan, ez dakit zein puntura arte egiten ditugun gaur egun aipatutako aldaketa horiek. Ebakuntza bat egitea edo aurpegian batek daki zein betegarri ziztatzeari ez da inolako tontakeria, eta zalantza daukat ez ote dagoen norbere irudia dezentetik gorrotatu beharrik gorputzari horrelakorik egitea erabakitzeo. Ondo dagoena zer den zehatz mehatz azaltzen digute eta onargarria denetik aldentzen dena 'zuzentzeo' baliabideak ematen dizkigute. Horrela, gure gorputza gaizki dagoela barneratutakoan, ez daukagun dirua behar ez ditugun 'konponketak' egiten xahutuko dugu, eta gainera, inork behartu gabeko erabakia dela sinistuta.

145 lagunek eman dute izena Mangaixue martxan

-MAILLO OIARZABAL Azkoitia Anaitasuna mendi bazkunak antolatuta, bosgarrenez egingo dute larunbatean Mangaixue mendi bizikleta martxa Azkoitia. 15:15ean irtingo dira parte hartzaileak Plazaberritik, eta toki berean bukatuko dute martxa. Aurrekoetan bezala, bi ibilbide izango dituzte aukeran txirrindulariek: luzea, 35 kilometroko luzerarekin eta 1.500 metroko desnibel positiboarekin; eta laburra, 25 kilometrokoa eta 1.100 metroko desnibelarekin.

2019an egin zuten azken edizioa, eta beraz, hiru urteko etenaren ostean itzuliko da aurtur Mangaixue. Anaitasunako antolatzaileak «gogoarekin» daude zaptaturako; «lan asko» eskatzen du horrelako martxa bat antolatzeko, aitoritu dutenez, baina merezi duelakoan daude. Uztai-lean ireki zuten izena emateko epea Interneten, irailan Uhai- t

kafetegian ere eman ahal izan da izena, eta herenegun itxi zuten aurretiazko inskripzioan 145 lagunek eman dute izena. Larunbatean bertan ere izango da izena emateko aukera, urtero bezala, Plazaberrin, 14:00etatik aurrera. Mangaixuen guztira zenbat txirrindulari elkartzea espero duten galdetuta, eguraldi iragarpenak «zeresan handia» izaten duela diote antolatzaileek: «Nolako eguraldia espero den begiratzen du jendeak, horren arabera erabakitzen dute askok egunean bertan izena eman ala ez». Mangaixue egitera animatzen diren txirrindulari «gehien-gehienak» gertukoak izango dira aurtur ere, Azkoitia-koak eta Azpeitikoak.

Ibilbideari dagokionez, nagusi «betikoaren antzekoa» izango dela azaldu dute Anaitasuna bazkunak, «baina berrikuntza batzuk» ere sartuko dituztela gaineratu dute. 2019an, Txalin-



2019an, IV. Mangaixueren irteeran ateratako argazki bat. HITZA

txo, Samiño, Pagotxeta eta Olotza igaro zituen Mangaixuek. Txirrindulari batek baino gehiagok ibilbidearen *track*-a eskatu diete, baina halakorik ez dute zabalduko martxaren aurretik.

Zozketak eta eskaera bat

Mangaixue bizikleta martxa da, ez da lasterketa bat, eta beraz,

saiklapenik ere ez dago. Hori bai, martxan parte hartuko duten guztien artean zozkatzeko «sari ugari» izango dituztela gogoratu dute antolatzaileek, eta jatekoa ere ez dela faltako gaineratu dute.

Mangaixuen parte hartuko duten zein mendi bizikletan ibiltzeko ohitura duten kirolzale

guztiei zuzendutako dei bat ere egin nahi du Anaitasuna mendi bazkunak: Mangaixue bizikleta martxan ez ezik, «urtean zehar ere» ingurua eta baserriarrak «errespetatzea» eskatu nahi diete, bideetan itxita aurkitzen dituzten langak zeharkatu ondoren berriro itxita utziz, esaterako.

Iturbide pandero jotzailea hil da

Imanol Arregi 'Iturbide' loiolatarra atzo hil zen, 87 urterekin • Azken urteetan plazetan jotzeari utzita zegoen, baina mahai bueltan jotzeari sekula ez zion utzi

– NEREA URANGA

Pandero jotzailea zela entzutea ez zitzaion gustatzen Imanol Arregi *Iturbideri*, baina mundua panderoak eman ziola aitortzen zuen. Loiolako Iturbide baserrian jaio zen 1935ean, eta atzo zendu zen, 87 urterekin.

Plazaz plaza eta txapelketaz txapelketa urteetan ibili zen Euskal Herrian zein atzerrian, eta berak aitortu bezala, trikitizalea, dantzazalea eta festazalea zen. Hain zuzen, 1974an, 1975ean eta 1977an, Iñaki Garmendia *Lajare*-kin batera hiru txapelketa irabazi zituen, eta 1985ean, Miren Etxaniz hernaniarrarekin bestea. Zenbait disko ere kaleratu zituen: lehen grabaketa Enrike Zelaia soinu jotzailearekin egin zuen 1972an, *Euskalerriko Erromeria* izenarekin. Bestalde, *Trikilariak* izeneko diskoan parte hartu zuen Lajarekin batera, baita Antonio Aranaga *Auntxa* soinu jolearekin ere, *Urrestillako Trikixa* izeneko diskoan.

Umore handiko pertsona zen Iturbide, eta kontu-kontari aspaldiko kontuak gogora ekarritik solasean jardutea atsegin zuen. Bizitzan beste gauza asko bezala, bere kasa ikasitakoa zen panderoa jotzen, idazten eta dantzaren ere; halaxe kontatu zuen 2020ko martxoko *Uztarría* aldizkarian. Horiek eta beste hainbat istorio bildu zituen Amagoia Gurrutxaga *Berriako* kazetari eta idazleak 2017an Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak eskatuta ondu zuen *Iturbide*, *igitai jolea* biografia li-



Imanol Arregi pandero jotzailea, 2020ko otsailean, Iturbide baserrian. ARNAITZ RUBIO APREA

buru-diskoan. Pandero jolearen jaioterria aurkeztu zuten liburu hura, eta dozena bat urte lehenago, 2005eko San Jose eguneko Trikiti Jaialdian hain zuzen, omenaldia ere egin zioten Kepa Arrizabalagarekin batera.

«Trikitilarien managerra»

1935eko abenduaren 29an jaio zen Iturbide, Loiolako izen bereko baserrian. Pandero joleen tradizio handiko familian jaioa izanik, hark zioen oinordetzaz zertokiola panderoa jotzea, Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak gogoratu duenez. Joan den mendeko 1970eko hamarkadan «garrantzi handia» hartu zuen pandero joleak, eta Gurrutxagak *Iturbide*, *igitai jolea* liburuan jaso zuen



Trikitixaren ganbara erakusketaren irekiera Azpeitian. I. ELUSTONDO

moduan, «trikitilarien managerra» ere izan zen hura. «Iturbide hasi zen behetik kobratzeko joera hori aldatzen, Landakandaren esanetan: trikitilariak artista gizona esaten hasi zen hura, hala nabarmentzen zuen Sakabik».

Horrez gain, Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak Gurrutxagak idatzitako biografiaren honako pasarte hau ekarri du gogora: «Urrestillan jendaurrean lehen-dabiziko aldiz jo eta gero, igitaiarekin jarduten nuen arbi sororako bidean, jaiko pieza buruan nuela. Horrek ez dauka, baina, inolako meriturik. Igitaiak oso terreno txikia zeukan, eta baliteke nire pandero jotzeak, tarte txikiaren soinu ugari ateratzeko gaitasunak, zerikusia izatea horrekin. Nik, izan ere, ez dut mugimendua eskumuturretik egiten, hatzekin baizik. Eta haize pixka bat sartu zitzaidanez, hurrengo Nuarbeko Trinidadetik festetara joan nintzen. Osintxuar bat joaten zen hara piano soinuarekin, Periko zuen izen, eta, igitaiarekin entsaiatu ondoren, hurbildu nintzen. Soinu joleek beti eramaten zuten pandero bat lagun egin ziezaien, eta han ere eskaini zidaten. Nik jo egin nuen».

Erreakzioak

Iturbideren heriotzaren albistea azkar zabaldu zen sare sozialetan, eta erreakzio soka ekarri zuen. «Maisu handia eta belaundaldi berrientzat benetako erreferentea» izan dela jarri zuen Korrontzi taldeak; Amagoia Gurrutxagak *Urrestillako festetan* disko *Fandangoa* abestiarekin agurtu zuen pandero jotzailea; eta Iban Arregi Berria Taldeko Kontseilari ordezkari eta ilobak hitz politik eskaini zizkion osabari: «Iturbideko maiorazko, hurre umorea eta maitasuna izan duk gure aterpe, gurekin izango haiz betirako».

Eskelak

Hilberriak
Urteurrenak
Eskertzak

UROLA KOSTAKO HITZAn jarrita,
Goierriko Hitzan eta Atarian DOAN

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

Eskelak 18:30ak arte hartzen ditugu
urolakosta@hitza.eus / Tel.: 943-89 00 17

Eskelak orain **TXIKIA** (82mm x 64mm): 104 € / *Harpidedunentzat: 52 €
HANDIA (124mm x 64mm): 156 € / *Harpidedunentzat: 78 €
merkeago **ESKERTZA** (38mm x 64mm): 52 € / *Harpidedunentzat: 27 €

*Harpidedunak HITZAko bulegotik pasa
Bez barne



Patxi
Murua Berakoetxea



*Pasatu da ekaitza, zerua oskarbi
Urumeako haitzetan haizea jostari
Loiolan, sagastian, txoriak kantari
Berakoetxeako horma zaharrak hizlari
Gu, maite zaitugunok, arretatsu adi
Diote, egin toki bizitakoari
oroimenak betiko bizia du sari.*

Joxepa Gorostidi koinata eta Altzoko Berakoetxeako ilobek, esker onez.

Gonbidatzen zaituztegu gaur, osteguna, arratsaldeko zazpi eta erdietan
Donostiako San Vicente elizan (Alde Zaharra) izango den agur ekitaldira.

ALTZO, 2023ko irailaren 14an.

Agenda

Gaur, osteguna

Bilera

Aizarnazabal. Auzo bilera, udalak deituta, 18:00etan, herriko plazan.

Solasaldia

Azpeitia. Euskara eta Kulturartekotasuna Azpeitian egitasmoaz solasaldia, 18:30ean, Azoka Plazako aretoan.

Bihar, ostirala

Antzerkia

Zarautz. Baginaren bakarrizketak antzezlan, 20:00etan, Moldo aretoan.

Irekiera

Orio. Saregile Orioko Emakumeon Etxearen irekiera ekitaldia, 18:00etan, Pilliku plazan.

Musika

Azpeitia. Muzak eta Siglas taldeak, Katapult Tour egitasmoaren barruan, 20:00etan, Sanagustin kulturgunean.

Zumaia. Benito Lertxundiren kontzertua, 21:30ean, Aitzuri pilotalekuan.

Etzi, larunbata

Aurkezpena

Azkoitia. Esteban Elizondo organistaren liburu aurkezpena, 12:00etan, parroikian.

Azpeitia. Eevee argazki liburua-aren aurkezpena, Nora Alberdiren eta Elena Olabereren eskutik.

Ikuskizuna

Orio. Nao-Now-Nau zirku eta antzerki ikuskizuna, 19:30ean, plazan.

Musika

Orio. Samba badago izenburupean, samba, reggae eta bossa nova estiloetako kontzertuak, 19:00etatik aurrera, Etxeluze gaztetxearen aurreko zelaian. Eguraldi txarra bada, barruan.

HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

'Ketariatik mundura' pastoralak eskainiko dute igande arratsaldean Getariako Bista Onan. Formatu txikikoa eta laburra da, eta Juan Sebastian Elkano eta mundu bira ditu ardatz.

Pastoral bat Getariako herriari

-ONINTZA LETE ARRIETA

Getaria

Lurraren ertzean ura / itsas bazterrean lurr / Munduak bazterrik ez du / eta guk aurkitu gura... Katrapona tuneletik / beti jalgitzen argira / Hala bedi bihar ere / Xiberotik Getariara". Mixel Etxekoparrek idatzitako Ketariatik mundura pastoralak igande honetan erakutsiko dute Getarian, 18:00etan, Bista Onan, eta idazleak HITZARI aitortu dio pozarren dela lana Getarian aurkezteagatik. Haren ardazta, izan ere, Juan Sebastian Elkano eta lehen mundu bira dira. «Niretzat oso egitasmo ederra da istorio hori Getarian kontatzea, aspalditik arrotz bezain maitagarriak zaizkidalako itsasoari begira dauden herriak, eta oso erakargarriak Elkanoaren eta marinelen guztien figurak».

Etxekoparrek zahatu du Elkano erakargarri zaiola «bere argi eta itzal guztiekin», eta horren arrazoia gaineratu du: «Harigarria egin zait beti halako balentria egin izana, zeren, non abia liteke orain halako kontratu baten egitera, non badakizun hamarretik zazpi-zortzi ez zaretela itzuliko? Beti erakarri nau abenturazale bezala, eta gorde gabe izan diren eta izan ziren itzalak ere bai, munduaren aurkikuntza izan bazen ere, kolonizazioaren urrats handia izan zelako garai hura, eta euskaldun bezala, maite dut itzal-argi guztien asumitzea, gureak direlako».

Etxekoparrek hiru hamarkada zeramatzan Elkano irakurtzen, eta duela bost urte bururatu zitzaion pastoralak idaztea. «Elkanoaren istorioaren parte bat kontatzen den arren, lana abiatu dut Ketariatik. Getaria herriaz irakurrian nintzen, eta ikusi nuen bazela kondaira bat eta ipuinak ere bazirela herriaren jatorriaz, eta hortik abiatu dut pastoralak», ze-



Ketariatik mundura pastoralako hiru aktoreak, antzezlanaren une batean. UTZITAKOIA

haztu du. «Fikzioak, mitologiak eta errealitateak bat egiten dute antzerkian», gaineratu du.

Nano pastoralak da Ketariatik mundura lana, hau da, formatu txikiko antzezlanak: oholztan



«Euskaldun gisa, maite dut itzal-argi guztien asumitzea, gureak direlako»

Mixel Etxekopar
'Ketariatik mundura'-ren idazlea

hiru aktore bakarrik izango dira, eta horiei bi musikarik lagunduko diete; ordu eta erdiko iraupena izango du. Oholtzarik gabe, soka batek mugatuko du pastoralaren eremua, «eta eremu hutsa eta txiki horretan gertatuko da guztia», kontatu du. «Istorioa Getarian abiatzen da, eta Moluketatik eta Elkano ibili zen beste hainbat uhartetatik pasatuko da, baina beti toki berean eta ezer al-

datu gabe; dena aldatzen da ikuslearen begian edo buruan». Etxekoparrentzat, alde horretatik, «antzezlan arkaiko bezain modernoa» da.

Dagoeneko erakutsi dute zenbait tokitan lana. Estreinaldia, esaterako, joan den irailean egin zuten, Donostiako portuan, mundu biraren 500. urtemugan. «Kontxatik patatxa batean iritsi ginen kaira, eta pastoralak portuan bertan izan zen; izugarri ederra izan zen».

Txikitatik jasoa

Aktiboki parte hartzen du Etxekoparrek obran bertan, bera baita bi musikarietako bat -Kristian Galtzetabru da bestea-, eta gainera, alaba du aktoreetako bat: Maika Etxekopar. Beste bi aktoreak Iñitza Iriarte eta Beñat Larrori dira. «Hirurak oso trebatuak dira kantuan eta pastoraletan». Iriarte eta Etxekopar Amaren Alabak musika taldean ere badabilta.

Zuberotarra da Etxekopar, Go-tain herrikoa. Tradizio handia

dute han pastoralak, eta txikitatik ikusi izan ditu, baita haietan parte hartu eta haiek antolatu ere. Etxekoparrek azaldu du «tradizioari beti begi berriekin» begiratzen dietela berak eta bere taldekideek. «Pastoral txikiak egiten ditugu, eta oraingo hau baino formatu txikiagorik ez dut uste izan denik historian; horregatik deitu diogu nano pastora-la». Baina, zer da pastoral bat? «Pastoral bat da opera herrikoia bat, istorio baten kontatzeko manera, modu aski sinplea, mugimenduak musikaz lagunduta».

Etxekoparrek azaldu du berez formatu handiagorako idatzi zuela lana, «baina Getariako lagunek bultzaturik», formula txikiagora jotzea erabaki zuela. «Eta horrela sortu zen inoiz egin den pastoral txikiak», dio. Getariar guztiak animatu ditu igandean obrak gozatzera, eta aitortu du nahiko lukeela pastoralarekin «mundu bira ez, baina euskal portuen bira egitea».